

Baketik-en bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzarekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak... Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusteko eta ondoren». Hau da pertsona honek pelikula ikusteko egiten digun iradokizuna. Nahi izanez gero, zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago www.baketik.org webgunean)

Gaiak

Anarkismoa, idealak, justizia

Anarkismoa. Militante anarkista bati eta bere bizitzan zehar egindako ekintza iraultzaileei buruzkoa da filma.

Idealak. Sinesten duen kausaren alde bizitza ematea erabakitzen duen gizon baten borroka iraultzailea kontatzen du filmak.

Justizia. Horretarako gizartean indarrean dauden arauak hautsi behar baditu ere kontzientziak esaten dionaren arabera bizi den pertsona bat aurkezten digu filmak.

Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikustea eta entzutea iradokitzen dizugu:

...barrura begira. Gutako bakoitzari esanguratsu egiten zaigun horri buruz eta gure bizitzan bertan sorrarazten dizkigun galderei buruz hausnartu. Helburua ez da betirako erantzunak aurkitzea, uzten dizkigun arrastoei erreparatzea baizik.

...kanpora begira. Taldean edota familian elkarrizketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea da.

...ez bakarrik arrazoiarekin, baita bihotzarekin ere. Une batez aurreiritzi ideologikoak eta edo aurrez ditugun ideiak albo batera utzi, pelikulak kontatzen digun horren harira, sentimenduek hitz egin dezaten.

...eta denbora baten buruan, berriz ere pentsatu. Adi erreparatu egun batzuen ostean pelikulak utzitako arrastoari. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gugan hartu duen biziak sortutako inpresioa da.

Zenbait galdera...

...pelikula ikusi aurretik

- Anarkismoari buruz: Zer da anarkismoa? Zein da bere filosofia?
- Idealei buruz: Noraino heltzeko prest egongo ginatke gure idealengatik? Edozein bide zilegi al da helburua garbia bada?
- Justiziar buruz: Arauak bete egin behar al dira bidezkoak iruditzen ez zaizkigunean ere? Ondorioak onartzeko prest al gaude?

...pelikula ikusi ondoren

- Zergatik erabakitzen du Luciok ekintza klandestinoetan aritzea? Zergatik arriskatzen da kartzelara joatera? Zertarako erabiltzen du ekintza klandestinoetan lortutako dirua, bere onura propioa bilatzen al du edo guztien ona?
- Zeintzuk dira bere arrakastaren arrazoiak? Lucio kriminal bat al da? Kartzelara joatea merezi al du? Zergatik?
- Ados al zaudela Lucioren ondorengo adierazpenekin? Zergatik? (1) «Nire zortetik handiena pobre pobre jaiotzea izan zen, ez bainuen inongo esfortzurik egin beharrik izan ezarritako guztiari errespetua galtzeko: elizari, jabeago pribatuari, estatuari...»; (2) «Hainbat momentutan erantzun bortitzik ez duen izakia anormal bat da»; (3) «Nire bizitzako urterik onenak frankismoaren aurkakoak izan ziren. Denaz aparte, sufrituta ere niretzat bizi izan nuen hura, injustizia hura pribilegio bat izan zen».

Maite Aseginolazaren laguntzarekin.

Lucio

Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: Lucio.

URTEA: 2007.

IRAUPENA: 91 min.

HERRIALDEA: Euskal Herria.

ZUZENDARIA: Aitor Arregi, Jose Mari Goenaga.


AKTORE-ZERRENDA: Dokumentala.

EKOIZPEN-ETXEA: Irusoin/ Moriarti Produzioak.

Sinopsia

Anarkista asko izan dira munduan, eta dira oraindik ere. Ugari izan dira kausaren alde lapurretan edo kontrabandoan arituak. Oso gutxi izan ira Ché-rekin estrategia-eztabaidan jardunak, edo Eldridge Cleaver Pantera Beltzen buruari lagundu diotenak. Horri guztiari batuta, planetako bankurik boteretsuena estu eta larri jarri zuena traveller check-en faltsutze masiboaren bitartez, egun bakar batean ere huts egin gabe bere etxegintzako lanera, bakarra izan da. Lucio Urtubia, Cascantekoa (Nafarroa).

Lucio



baketik